

Balio proposamena

Guztiori gertatu zaigu noizbait taberna batera joatean, beteta egotea. Aplikazio eta sentsore hauen bitartez arazo hori konpondu dezakegu. Gainera, koronabirusak sortutako egoera dela eta herriko denda edo tabernak aforo berezi bat dute, errespetatzea beharrezkoa dena. Herritarren erosotasuna bilatzeaz gain, osasunari lehentasuna ematen diogu eta egoera berri hontan jende pilaketak sahiestu behar ditugu.

Hiru bezero mota:

- **Lokaleko langileak edo nagusiak direnak:** Aplikazioarekin lokaleko nagusiak eta langileak bere lokaleko aforoa kontrolatu ahal izango du. Laguntza ematen diegu beraien negozioa hobetzeko, hau da, lortzen dituzten datuekin hainbat erabaki hartu ditzazkete beraien negozioari etekin handiena ateratzeko, bezero gehiago eskuratzeko eta kapitala lortzeko.



- **Herritarrak:** Aplikazioaren bitartez, lokaleko aforoaren informazioa eskura izango dute. Helburua egunerokotasunean denbora aurreztea eta erosotasuna bilatzea izango litzateke. Izan ere, taberna batera joan ala ez erabakitzen laguntzen dugu. Osasuna zaintzeko segurtasuna eta bizi kalitatea hobetzeko aukera eskainiko diegu (Gaur egungo covid-19ren egoeratik).
- **Publizitateko enpresak:** Enpresek gure aplikazioan publizitatea egiteko aukera izango dute diruaren truke. Premium erabiltzaileak ez direnak ikusiko dituzte haien iragarkiak. Enpresa hauek, publizitatea jarri nahi izango dute beraien lokala edo marka aplikazioan promozionatzeko. Bezero honek, bere negozioan edo markan bezero berriak lortzeko segurtasuna emango diogu.

Beste enpresetatik bereizten gaituena gure sentsoreen ideia berritzailea, hau da, ideia berri bat da. Horretaz gain, diseinu argia eta egokia edukitzeaz gain, aplikazioa edonorentzat eskuragarria izango da. Merkatuan lehiakide garbirik eduki ez arren, prezio nahiko baxuak jarriko ditugula aurreratzen dugu. Izan ere, lehengo helburua pertsonetara iristea da eta ondoren beharren premiak asetzea, hots, eguneroko erosotasuna bilatzea.

